

SUBJUNTIBOA

NOR eta NOR-NORK (nahastuta)

- | | |
|---|-------------------------------|
| 1. Gu liburutegira ikastera (joan) | nahi dute gurasoek. |
| 2. Koadernoak (ireki) | agindu digu andereñoak. |
| 3. Zuk ariketak (egin) | esan dizu irakasleak. |
| 4. Irakasleak zu bulegora berehala (etorri) | nahi du. |
| 5. Ni Bilbora (joan) | eskatu dit aitak. |
| 6. Leirek eta nik bizikletak (hartu) | garajeko giltza behar dugu. |
| 7. Haiek oso zoriontsuak (izan) | espero du Aitorrek. |
| 8. Gu ongi (portatu) | eskatu digu irakasleak. |
| 9. Guk fisikako formulak (ulertu) | nahi du Iratik. |
| 10. Zuk ariketa hau berriro (egin) | esan dizu irakasleak. |
| 11. Karmelek kanta hau (abestu) | nahi dugu. |
| 12. Bihar arratsaldean zu gurekin (bildu) | eskatzen dizugu. |
| 13. Lagunek ni eskiatzera eurekin (joan) | nahi dute. |
| 14. Zuek diskotekan (sartu) | baimena beharko duzue. |
| 15. Amaiak kamisetak (erosi) | eraman dut Bulevarrera. |
| 16. Zuek urte amaierako festa (prestatu) | espero dut. |
| 17. Zuk arazo guztiak (konpondu) | laguntza beharko duzu. |
| 18. Amonak arropak (josi) | eramaten dizkiot. |
| 19. Guk plastikako eskulanak (entregatu) | eskatu digu Luciak. |
| 20. Nik pastelak (erosi) | eskatu dit amonak. |
| 21. Amak berarekin (joan) | eskatu dit. |
| 22. Amaia (sendatu) | ekarri dut medikura. |
| 23. Zuk kotxeak (saldu) | eskatu dizu mekanikariak. |
| 24. Guk ura (edan) | agindu digu entrenatzaileak. |
| 25. Etxeko giltza utzi didate, ni nahi dudanean (sartu) | etxean. |
| 26. Zuek film berria (ikusi) | zinemara joan beharko zarete. |
| 27. Amonak ongi (entzun) | jartzen dugu ozen telebista. |
| 28. Zuek garaiz (itzuli) | espero dut. |
| 29. Zu ere saskibaloia taldean (sartu) | nahi dugu. |
| 30. (mugitu, gu) | , bestela trena galduko dugu. |
| 31. Medikuek bitamina horiek (hartu) | agindu dizu. |
| 32. Kotxea kendu du, guk kamioia ondo (aparkatu) | |
| 33. Arropak ondo tolestuta (gorde) | nahi du amak. |
| 34. Jarri koadernoak mahai gainean nik (ikusi) | |
| 35. Nik musika (jarri) | erregutu didate alabek. |